

**Bixente Hirigaray Labéguerie**

**Historiako Gradua**

**2014-2015 ikasturtea**

**Txanponaren erabilera Donemiliaga Kukula  
monasterioaren agirien arabera, X-XI. mendeetan**

**Juan José Larrea**

**Erdi Aroko saila**

## AURKIBIDEA

Laburpena.....	3
Sarrera.....	5
Analisia	
1. Testuinguruaren barnean	
1.1. <i>Raisce</i> -aren kokapen geografiko eta kronologikoa.....	11
1.2. <i>Raisce</i> -aren izaera geografikoki.....	17
1.3. <i>Raisce</i> -aren izaera kronologikoki.....	19
2. Testuingurutik kanpo	
2.1. <i>Raisce</i> -aren balioa prezioaren balioarekiko.....	22
2.2. <i>Raisce</i> -aren izaera prezioaren izaerarekiko.....	24
2.3. <i>Raisce</i> -aren izaera salgaiaren izaerarekiko.....	25
Ondorioa.....	26
Bibliografia.....	29
Becerro Galicano-ko testuak.....	31

## LABURPENA

Lan honetan, Donemiliaga Kukulako Becerro Galicano kartularioa izan da ene euskarria. Izan ere, arlo ekonomikoari buruzko berezitasun bat nahi izan dut aztertu: *raisce*-a. Hitz hau, gaur egun, ez da oraindik argitua eta etimologia arabiarrekoa da. Kartularioko testu batzuetan agertzen da, ondasun higiezinaren trukaketa edo salmentetan hain zuzen ere. Salgaiari ematen zaion prezioaz gain, *raisce*-a gehitzen zaio. Tradizio kulturala edo ekonomiko-soziala izan, ene helburua izan da hitz honi buruzko hurbilketa baten egitea, azken finean, hobeki ulertzeko gisan. Lanketa honetan, definizio zehatz baten aurkitzea zaila zenez, landu nahi izan ditut hitzaren agerpen geografiko, zoin, kronologikoak, baita, bere izaera eta balioak ere. Lehenik, lekua eta denbora izan ditut bere balio eta izaeren konparatu eta aztertzeko, ondotik, *raisce*-a bera prezioa eta salgaiarekin alderatzeko. Testuinguruaren barne eta kanpo dauden aspektu hauek landu ditut, kartularioko beste testuak hunki gabe. Beraz, lana *raisce* hitza daukaten testuetan mugatu dut. Era berean, erosle eta saltzaileekiko harremanak ikertzeko beste testuen beharra neukanez eta aspektu hori oso konplexua zenez, ez diot honi ekin.

Geografikoki eta kronologikoki, hitzak duen presentzia jorratuz, ohartu niz berezitasun batzuk agertzen zirela - azpimarratuz ez zirela derrigorrez berezitasunak, baina, leku eta denboraren ezaugarri hauei arrazoi "arrunt" batzuk eman zitezkeela - eta beste batzuetan, ez zela aspektu azpimarragarririk. Bi ezaugarri hauek konduan hartuz, saiatu niz *raisce*-a bere testuinguruan kokatzen, ondorio batzuk ateratzeko gisan. Gainera, hasieratik azpimarratu dut gaurko logika ekonomikoekiko ahal bezainbat gardentasun atxikitzen saiatu nintzela, garaiko testuinguruaz urruntzen den interpretaziorik ez egiteko gisan.

Bukatzeko, lan guztia bibliografia ahal bezain zabal batekin osatu nahi izan dut giro sozio-ekonomikoa - bereziki ekonomikoa, harremanen aspektua ez dudalako landu - ulertzeko gisan. Hala ere, notatu behar da garaiko ekonomiari buruzko lan guti daudela eta dauden urriek ez dutela argibide nabarmenik ematen. Gainera, alde batetik al-Andalus eta bestetik erreinu giristinoen arteko harreman eta giro nahasiak ekonomia eta gizartearen ulertzeko zailtasunak jartzen dizkigu gaur egun oraindik.


Txostenaren bukaeran, erabili ditudan testuak daude, irakurlea laguntzeko.  
Ondorioz, lan hau, *raisce* hitzaren inguruko lehen hurbilketa bat nahi da izan.

## SARRERA

Txosten honetan, Donemiliaga Kukulako *Becerro Galicano* izeneko kartularioa ukanen dugu oinarri gisa. Kartulario monastiko hau, gaur egungo Errioxako Donemiliaga Kukulako monastegian idatzia izan zen 1195. urte inguruan. 750 dokumentu dauzka, 759-1194 urteen artean kokatuak, baita beste hogeit bat dokumentu XIII. mendekoak, idazkera karolingiarrean idatziak. Hizkuntza latin bilakatua da, gaztelaniaren lehen aztarna nabarmentsuekin. Bestalde, herrien aldaketa geografiko eta toponimikoek arazo batzuk sor ditzake testuak kokatzerako orduan.

VIII. mendetik eta Al-Andalus-eko konkista hasiz geroz, XII. mende arte, España giristinoa lantzeko iturri nagusienetako bat da. Bide bereti, Errioxa, Nafarroa, Gaztela, Araba eta Bizkaiko gizarteak ulertzeko baliagarria izan daiteke, Nafarroa eta Gaztelaren artean iraunkorra izan zen gatazka gune baten erdian kokatzen zelariak monastegia.

Orografikoki, Donemiliagako Kukula Sierra de la Demanda Iberiar Sistema mendigunearen iparraldean dago. Izan ere, bazter-bazterrean kokatua da, bailara batean hain zuzen ere: Iberiar sistema bere hegoaldean hasten da. Beraz, Donemiliagaren iparraldean lautada bat dago, hamabost bat kilometrotara Konpostelako Donejakueko bidea bertan pasatzen delarik.



1. dokumentua

Gure lana kartularioan agertzen den hitz batetan oinarrituko da: *raisce*. Hitz honek etimologia arabiarra dauka, *riswa* alegia. Honi buruzko informazio biziki guti dago. Badirudi *albaroc* hitza (etimologia arabiarrekoa: *baraka*) sinonimoa duela, eta *roboratione* hitza ere formulazio berdinetan agertzen dela<sup>1</sup>.

*Raisce*, Donemiliaga Kukula inguruan gauzatzen diren salerosketetan agertzen da. Izan ere, trukaeta edo salerosketa batean, saldutakoaren truk, prezio bat jasotzen da. Gure kasuan, prezioarekin batera, *raisce*-a ere jasotzen da, prezioan bezala, izaera eta balioak zehaztuak direlarik. Ikuspuntu ekonomiko batetik, suposa daiteke transakzioaren burutzerat datorren kontzeptua dela. Bestalde, txanponetzkoa izan daiteke edo espeziezkoa. Hona adibidez bat:

Ego Aketi Pasqualez et mater mea Elo, placuit nobis et vendimus ero nostro propio de Costa, ad latus de illo ero de Oveco Ceco, ad tibi, Oveco, et ad abbate domno Oveco, in precium quantum placuit, et dedisti nobis XXVI solidos, et raisce, arenzata de vino, X panes et arietem<sup>2</sup>.

Lana, *raisce* hitza daukaten eta 1000-1100 urteen arteko testuetan baizik ez da oinarrituko. Erabili dudana euskarria Becerro Galicano-aren edizio digitala da<sup>3</sup>, BGBD izendatuko duguna. Bertsio honetan, Ledesmak eta Ubietok osatu zituzten testuen izenak ere agerai dira, baina, ez ditugu erabiliko.

Gure kasuan, garrantzitsua izanen da terminologia baten zehaztea. BGBD-an agertzen diren parte edo dokumentu ezberdinak, "testuak" deituko ditugu, eta, edukitzen dituen parte ezberdinak "paragrafoak". Trukaketa edo salerosketaren baitan, salduko dena "salgaia" izanen da eta trukean ematen dena "prezioa", izan diruz edo espeziez. "Izaera" deituko diogu, salgaia, prezioa edo *raisce*-a osatzen duen entitateari, adibidez, *ager*, sos edo ogiari. Bukatzeko, "balioa" deituko diogu salgaiaren tamainari, eta, prezioaren, zein *raisce*-aren baloreari edo osatzen duen izaeraren kantitateari.

Besteak beste, edizio honetan hamazazpi testu erabili ditut. Hona hemen hamazazpi testuen zenbakia (bertsio digitalean agertzen diren ordenean) eta testuen

---

1. MENÉNDEZ PIDAL, *Léxico*, 592. orr. Hemen *resce* terminologia erabiltzen du eta sinonimoa *alboroque* edo *albaroc* da.

2. BGBD 238.

3. Donemiliaga Kukulako Becerro Galicanoaren edizio digitala: <http://www.ehu.es/galicano/?l=eu>

urtea, bertsio digitalean markatzen duen bezala (raise paragrafoa daukatenean urtea ez da agertzen hemen):

<b>Testuaren zenbakia</b>	238	118	29	348	48	511
<b>Testuaren data(k)</b>	1034/36	1044	1048	1045-1062	1064	1065

<b>Testuaren zenbakia</b>	702	9	47	224	595	15
<b>Testuaren data(k)</b>	1081	1082	1085	1086	1086	1084-1088

<b>Testuaren zenbakia</b>	460	428	26	20	16
<b>Testuaren data(k)</b>	1088	1090	1095	1070/82-1098	1099

## 2. dokumentua

Zehaztu beharra dago ez dituztala testu hauek haien osotasunean landu, baizik eta *raise* hitza zeukaten paragrafoak.

Ene asmoa, hitz honi buruzko hurbilketa bat egitea izan da. Honen esanahi edo definizio zuzena ondorioztatzea zailegia denez, inguruko kontzeptuak, ideiak eta berezitasunak aurkitu eta analizatu nahi izan ditut. Bestalde, honen erabilpena gauzatu zuen testuingurua ulertzera ere ahalegindu naiz.

Lehen atal batean, irizpide hauek erabili ditut: *raise*-aren agerpena geografia eta kronologiarekiko. Bi irizpide hauen arabera, ohartu niz testuekin lau multzo egin zitezkeela. Lau multzo hauek eskaintzen zuten kronologiaz baliatuz, *raise*-aren izaera landu dut, lehenik geografikoki eta gero kronologikoki, ikusteko biek eraginik zeukatenentz azken honengan. Bestalde, ene nahia *raise*-aren balioaren aztertzea zen, aurreko bi irizpideak erabiliz, baina, ekibalentziarik ezin dudanez egin izaera ezberdinen artean, atal hau ezin izan dut landu.

Bigarren atal batean, testu guziak elgarrekin hartuz, *raise*-a prezioarekin konparatu dut, lehenik bien balioa alderatuz, eta gero, bien izaera, ikusteko harremanik zegoenez.

Hirugarrenik, *raise*-a salgaiarekin konparatu dut, bien balioak alde batera utziz, salgaien izaerarik ez zelako, eta, bien izaera ikertuz, hemen ere, ikusteko loturarik egin zitekeen.

## Aldez aurreko ohar metodologikoak

Edozein analisi hasi aitzin, aipatu nahi nituzke kartulario bat aztertzerakoan agertzen diren zailtasunak, mugak eta idekidurak. Zailtasunak ugariak dira. Hauek, lehen mailako dokumentu eta kartularioaren idazketan egon diren baldintzei lotzen dizkiet, baita bien arteko loturari ere. Alde batetik, konduan hartu behar da (lehen mailako) dokumentua idatzi zuenak, gertakizun edo esaldi batzuk ez zituela idatzi, eta beste batzuk bai. Testuak, monastegiko eskribek idazten zituzten saltzaile edo erosleen izenean, idazkeraren monopolioa zeukatelako garain. Hori dela eta, nahitara egina izan edo ez, idazte ala ez idazte honek bere esanahia dauka dokumentuaren helburuari edo testuinguruari dagokionez. Gizartea eta ekonomiaren ezaugarrien inguruko zantzuak erakusten dizkigute, horregaitik, ez dira bazterrera utzi behar analisisa egiterakoan.

Beste aldetik, aurreko garaietako lehen mailako testuen bidez ekoiztutako kartularioa idatzi zen momentuko irizpideek ere, hots 1195. urte ingurukoek, haien garrantzia daukate eta erabateko moldaketa ekar dezakete dokumentuan. Izan ere, esaldien moldaketak egon daitezke, nahitara eginak eta zailak direnak ikusteko. Bainan, kartularioak ahazte edo falta batzuk ere islada ditzake, adibidez, izen bat ahaztuz, edo bestela ere, data bat gaizki idatziz. Testuaren esanahiaren arabera, huts edo falta egite batzuk ondoriozta daitezke, zinez zentzurik ez dutenean. Bainan, berezitasun batzuk huts batzuk bezala kontsideratzeak, historialariarengatik errextasun bat bezala ikus daiteke. Bukatzeko, huts batzuk ikustea kasik ezinezkoa da eta ulermen faltsu batera eramán gaitzake. Ondorioz, kartulario baten ikerketan jarduterakoan, zuhurtziaz ibili behar da eta arreta handiz tratatu behar dira aurrera eramaten ditugun analisi eta ondorioak. Transmisioaren nolakotasunak bere zentzua dauka.

Haien aldetik, mugek testuari zentzu oso bat ematen eragozten gaituzte. Esan beharra dago, hitzaren ulertzeko, gero eta informazio gehiagok, gero eta ulermen handiago batera ekarriko gaituztela. Bainan, hala nola, testua non idatzia izan den tokiaren ez idazteak, edo benetan trukatua izan den objektuaren izaera ez idazteak, muga batzuk erakuts ditzake. Gure lana, *raise* hitza daukaten testuetan mugatzen bada, beste lanketa batzuen kasuan, elementu batzuen faltak, testu espezifiko batzuetara mugatzera behartu ditu ikertzaileak. Adibidez, Casauriako San Clementeren kartularioaren ikerketan, lur-azalen taimana eta prezioa ez daukaten testuak bazterrera



utziak izan ziren<sup>4</sup>. Hizkuntzak ere bere mugak sor ditzake, beste hitz batzuk ere ulergaitzak izan daitezkeelakotz oraindik.

Bukatzeko, idekiduren aipamenean, onargarri izan daitezkeen interpretazioak sar ditzakegu. Informazio faltak, hitzei hainbat zentzu ematea ahalbidetzen digu. Gainera, gure lana hamazazpi dokumentuetan mugatua denez, lanketa, kartularioko beste testuekin konpara daiteke, baita beste monasterioetako kartularioekin ere, aldaketak, ezberdintasunak eta berdintasunak atzemateko gisan.

Orain, testuingurua eta *raisce* hitza ulertu nahi baditugu - edo eskala ttikiago batean, haien inguruko ideiak edo berezitasunak xexitu -, konduan hartu behar dugu testuak beste gizarte eta aro batetik datozela eta beraz, logikak zinez ezberdinak direla. Gaur egungo ekonometria XI. mendera egokitzea huts bat da. Garaiko logikak erabat ezberdinak izanen ziren, harreman eta salerosketetan - trukaketak barne -. Ildo beretik, pentsa daiteke *raisce* kontzeptua ez dugula gaur egun bereganatu, garaiko beste logika bati erantzuten diolako eta gaur egungo ekonomian honen lekua ez lukeelako, zentzugabekeriz ez baldin bada. Laurent Feller-ek esplikatzen duen bezala, batzuek zientzia ekonomikoa merkatu ekonomiari baizik ez diote aplikatzen, hau da, gaur egungo ekonomiari, non esfera ekonomikoa gizartean sartua den, aurreko garaietara zabaldu gabe, Polanyi-ren gisara<sup>5</sup>. Beste batzuek aldiz, zientzia ekonomikoa aurreko garaietan ere kontrastatu dute, fenomeno sozial eta kulturalak estaliz eta interpretaziorako modelo erreduzitaileak erabiliz:

Aujourd'hui, l'option de nombreux historiens économistes est inverse : ils dénie toute spécificité aux périodes non contemporaines et leur appliquent sans états d'âme les méthodes de la science économique : la science économique envahit, avec ses modèles réducteurs d'interprétation des comportements, l'ensemble des phénomènes sociaux et culturels et considère que les comportements humains ne sont "rien d'autre que" - [...] - des comportements individuels susceptibles d'être expliqués par la "maximisation sous contraintes" d'un intérêt, d'une satisfaction ou d'une préférence<sup>6</sup>.

---

4. FELLER et al., *Fortune*, 9. orr.

5. Ibid., 5. orr.

6. Ibid., 5-6. orr..

Ikerketa hori segituz, nik ere nahi izan ditut testuak gardentasun handienarekin analisatu, ahal bezain bat idekidurarekin interpretatzeko gisan. Analisi bikoitza egin dut, kontzeptuak testuinguruaren barnean (geografian eta kronologian) lantzen saiatuko gira, bainan, baita testuingurutik kanpo ere (salgaiaren eta prezioaren izaera eta balioarekiko<sup>7</sup>). Garrantzi handiarekin tratatuko dugu *raisce*-aren izaera, batzuetan objektu bat delako, besteetan txanpona, edo bestela biak. Testuinguru honetan, diru zirkulazioaren ezaugarri batzuk aipatuko ditugu, garaia eta tokiari dagokionez, baita diruak izan dezakeen objektu baten neurtzeko instrumentuaren izaera, Feller-ek Italiako Abruzzo eta Sabinan egindako diru zirkularioari buruzko ikerketan azpimarratzen duen bezala eta beranduago ikusiko duguna<sup>8</sup>.

Bestalde, gaur egungo lanketek galdegiten duten bezala, dokumentu historikoen lanketak giza-zientzia ezberdin eta anitzen interpretazioak behar lituzke, ondorioak ahal bezain zuzenak eta gardenak izateko. Aldiz, ene lana, nik eremandako urratsen emaitza bat da, ene ikasketen denboran bereganatu dituztan jakintzen eta ikuspunduen bidetik besteak beste. Orduan, konduan hartu beharko da ene interpretazioen eta aurkikuntzen hertsitasuna.

---

7. FELLER et al., *Fortune*, 6. orr: transakzioak testuingurutik kanpo lantzeko - "*une analyse décontextualisée*" -, hiru kontzeptu hauek hartzen dituzte konduan (salgaiaren izaera, kantitatea eta prezioa).

8. Id., "Conditions", 2. orr.

# ANALISIA

## 1. Testuinguruaren barnean

### 1.1. *Raise*-aren kokapen geografikoa eta kronologikoa

Gure lehen azterketa geografian zentratuko da. Esate baterako, hitzak daukaten testuen kokapen soil baten analisia egingen dugu.

1034/1036-1048



3. dokumentua

Raise-ri lotuak dauden salerosketei dagokienez, Grañon, Alesanco eta Cañas (Cannas) kokalekuak dauzkagu, kronologikoki jarraian - 1034/1036<sup>9</sup>-1048 bitartean - eta ber eskualdean kokatuak. 118. dokumentuko Vallotaren kokapenarekin zuhurtziaz ibili behar da, *raise* hitza Alesanco-n dagoen solareari lotua delako berez eta ez Vallotako lurrari: lur honi buruzko salmenta-agiria, Alesancoko orubea aipatzen den 9. Dokumentuaren datazio zuzena ez da ezagutzen, 1034 edo 1036koa izan daiteke.

aurreko paragrafoan dago. Baina, Vallotaren pasartean, salerosketa bat baldin badugu ere - *vendimus* -, ez dago preziorik. Beraz, bi soluzio daude. Pentsa daiteke Alesancoko solarearen prezioa Vallotako lurrarekin ere lotuta dagoela, hau da, prezioak bi lekuetako ondasunak ordezkatzeko dituela eta bide beretik *raisce*-ak ere. Horiek hola, lau toki hauek San Millanen iparraldean daude, Donejakue bidearen inguruan eta haien artean hurbil.

Dena dela eta, *raisce* hitza geografia zehatz batean agertzen da eskusiboki, epe mugatu batean. Garai honetarako, ez diogu garrantziarik emanen Donejakueko bideari. Izan ere, XI. mendean ez zen oraindik hainbeste garatua. Penintsulako erreinu giristinoetako interesak XII. mendean baizik ez dira hasiko mamitzen<sup>10</sup>. Donemiliagako Kukulatik gertu dagoen eta Donejakueko bidean dagoen Santo Domingo de la Calzada ere XI. mendean baizik ez zen eraiki<sup>11</sup>. Honek erakusten du ez zegoela oraindik lurraldearekiko lotura handirik.

Beraz, konduan hartu dezakegu 1034/1036-1045 urteen artean *raisce*-ak biltzen duen eremu multzoak eskusibitate ukatea. Bainan, fenomeno hau esplikatu daiteke suposatuz, garai honetan, leku honetan baizik ez zirela ondasun salerosketak egin. Bestalde, *raisce*-arekin bukatzen ziren transakzioak egon zitezkeen, ondotik, Donemiliagako Kukularekin lotu ez zirenak, eta beraz, kartularioan agertzen ez direnak eta gaur egun desagertu direnak.

---

10. GARCÍA TURZA, *Introduction*.

11. PASSINI, "Morphologie", 117. orr.

## 1045-1058



### 4. dokumentua

Ondotik, 1045 eta 1058 urteen arteko dokumentuak dauzkagu, Becerro Galicano Digitallean, dokumentu berdin baten baitan bilduak (dokumentu osoa, *raise*-rik ez daukaten eta interesatzen ez zaizkigun parteak konduan hartzen baditugu, 1062 urte arte doa), Santa María del Valle-ko ondasunak aipatzeko. Esplikatu behar da hemen ondasunak pilatu zirela eta transakzioak idatzi. Berantago, monasteri Donemiliagako Kukulari lotu zitzaion eta aipatu idatziak Becerro Galicanoan transkribatu ziren. Fusionatze honek Santa Maria del Valle-ko dokumentuak San Millaneko kartulario batean egoteak ulergai egiten du, bertako kartularistek, bereganatu zituzten ondasunen artxiboak berridatzi zituztelako.

Orduan, monasterioari loturik dauden eta salerosketa momentuan *raise* kontzeptua bereganatu duten tokiak Santa Maria del Valle eta Lequinizi-n dira, hots, San Vicente del Valletik gora doan haranean, bertatik Tiron ibaia isurtzen delarik. Haran hori Iberiar sisteman mendebalderago dago, gaur egungo Burgos-eko probintzian. San Millan-etik bertara joateko buelta handi bat eman behar da, edo Sierra de la Demanda zeharkatu mendebalderuntz. Orografikoki biek ber paisaia aurkezten digute

Izan ere, 1048tik goiti, haran honek, lantzen ari garen kontzeptuaren eksklusibitatea dauka, aurreko kasuan gertatu zen bezala. Hitza beste leku konkretu bati lotu zitzaion eta aurrekoa abandonatu zuen. Pentsa genezake leku hortatik desagertu baino, leku hauek ez direla gehiago agertzen kartularioan. Alta, 1048 urtetik goiti, Alesancon saldu diren lurren aipamenak ikusgai dira, 1088 urteko 460. dokumentua bezala, azalpen hau deusezten dutenak :

Sub nomine sancte et individue Trinitatis. Ego Azenari Garceiz, tale venit voluntas vel necessitas ut venderem ortum meum pro*<i>*um ad tibi, domno Blasio abbati, in villa que vocitant Alesanco, in precio que nobis placuit, id est, XX solidos, et in raise, X argentos. Hoc precium totum accepi et post modum deinceps habeatis illo orto usque in seculum<sup>12</sup>.

Beraz, *raise* bi garai ezberdinetan bi leku ezberdinetan agertzen da eta bakarrik bi leku hauetan, dagokien garaiaren arabera. Orduan, garai ezberdinetako lekuen eksklusibitateak atenzioa deitzen du eta azterketa sakonago bat merezi luke.

## 1064-1065




5. dokumentua

12. BGBD 460.

Ondoko dokumentuak 1064-1065 urteen artekoak ditugu, nahiko isolaturik, hurrengo data 1081ekoa delako. Hauek biak Villagonzalo eta Ayuelas dira. Gaur egun, Villagonzalo lekua Badaran toponimiarekin ezagutzen da. San Millan de la Cogolla haranaren irekiera ondoko lautadan dago, 7 km-tara, monasterioaren ipar-mendebaldean hain zuzen ere. Ayuelas monasterioatik iparraldera 53,5 km-tara dago.

Beraz, 1058tik, 1081 arte dauzkagun erreferentzia bakarrak bi hauek dira, nahiko bereziak haien artean: lehena Donemiliagako Kukulatik hurbil dago eta bigarrena urrun. Hemen, daukagun urte tartearentzat *raisce* erreferentzia guti daukagu, beste garaiekin konparatzen badugu. Hala ere, berriz konduan hartu behar da beste *raisce* erreferentzia batzuk egon zitezkeela garain, gaur egun desagertuak eta, baita transakzioak bi leku hauetan baizik ez zirela gertatu ere.

### 1081-1098/99



6. dokumentua

Ondoko garaietan, 1080 eta 1090eko hamarkadak landuko ditugu, 1081-1099<sup>13</sup> urteen artean hain zuzen ere. Eremu hau, besteak baino zabalagoa da, beste garaietakoeri konparatzen badugu.

Toponimia bezala, *Via de Prato* daukagu, gaur egungo Arroyo de Prado-ko eremuan egongo dena, Cárdenas eta Badarán artean. Bestalde, Tejares-en *raisce* hitza hiru aldiz agertzen da, Aventines-en bost aldiz, Villagonzalo-n bi aldiz, Salinas de Añana-n aldi bat, eta, Aventines eta Cañas-eko bidean behin.

Orokorki, San Millan-en iparraldeko lautadan kokatuak dira denak, 1064-1065 urteetako multzokoak bezala.

Oro har, beraz, *raisce*-aren kokapen geografiko eta kronologiko zabalak hartuz, lau multzo sortu daitezke. Esan bezala, agerpenaren eksklusibitateekin arretaz ibili behar da.

---

13. 1099. urteko testua 16. dokumentua da. Kartularioan 999. urtean datatua da, Ubietok datatu zuen bezala, baina, bere edukinaren arabera, DKBG-k, Ledesmak bezala, 1099. urtean kokatzen du. Baliteke Becerro Galicanoan akats bat egotea transkribatzeko orduan.



## 1.2. *Raisce*-aren izaera geografikoki

Atal honetan, aztertuko dugu ea geografiak *raisce*-aren gaineko eraginik baduen. Horretarako, aurretik egin dugun banaketa erabiliko dugu, ikusi dugun bezala, marko geografiko zehatzetan kokatzen baita multza bakoitza.

### 1034/1036-1048

Hasteko, mende hasierako multzo honetan gauzatzen diren salerosketa kasik guztiak elikagaiezko *raisce*-ekin osatuak dira, Grañon-en kokatzen denean ahari bat ere badugularik. Erran behar da ogia eta ardoa oinarritzko elementu arruntak zirela dietari dagokionez, eta beraz, ez dela honelako berezitasunik honen inguruan. Baina, Alesanco eta Vallotakoan, 15 *argenteos*-eko *raisce* bat dago: txanpona aipatzen duen *raisce* bakarra da, lau ogik lagundurik. Hala ere, lehen hiru salerosketak osatzen dituzten lekuen multzoa hartzen badugu kontuan, hots, Grañon, Alesanco eta Cañas, baita haien arteko hurbiltasuna ere, zaila da baieztatzea *argenteos*-ezko *raisce*-aren izaera Alesanco-ri lotzen zaiola. Beste arrazoi plausibleago bat bilatu behar da txanponentzat, ondoko ataletan aztertuko duguna. Momentuko, gehiengoan agertzen diren ogi eta ardoa dira. Izan ere, bizitzako oinarritzko elikagai irudikatzen zuten.

### 1045-1058

Ondotik, Valle de Santa Mariako ondasunak begiratzen baditugu, hemen ere elikagaiak ikus daitezke, ogi, ardo eta gasnak bezala, baita animaliak ere, ardi eta xerriak bezala. Haranak ez du txanponezko *raisce* bat ere erakusten.

Berriz ere oinarritzko elikagaiak dauzkagu eta animalien presentzia ere, ez digu ezer esanguratsurik erakusten, ohikoak zirelako eta aldi guztietan bakar bat agertzen delako. Gainera, animalien presentziak gasnaren ekoizpena justifikatzen du. Bukatzeko, ardoarentzat unitate berri bat agertzen da, hau da kamela.

Honela, *raisce*-ak unitate zerrenda jakin bat betetzen du kasik beti: ardo kamela, ogia eta abere bat. Ereku jakin honek, *raisce*-aren eraketaren sistemazio bat ezarrita zeukan martxan, salerosketa guztietan ez bada agertzen ere.

## 1064-1065

Hirugarrenik, Villagonzalo eta Ayuelas-en multzoan dirua agertzen da beti: ardo karabito erdi batekin doazen bi argenteos Villagonzalon eta sos bat Faiolas-en. Soilik bi dokumentu dauzkagu hemen, baina, nabarmenduko dugu txanpona agertzen dela bietan

## 1081-1098/1099

Azkenik, eremu erlatiboki zabala erakusten duen multzoak txanpon mota ezberdinetako *raisce* anitz baditu, 17/23ren gain hain zuzen ere. Txanpon neurri ezberdinak *argenteos*, *dineros*, *denarios*, *solido* eta *solido argenti* dira, argenteos, diru eta sosa hain zuzen ere. Batzuk binaka agertzen dira *raisce*-a osatzeko orduan. Orokorki, txanpona nagusitzen ari da hemen. Beste gauza bat da ikustea txanponaren agerpena geografiarekin lotua den edo ez.

## Ondorioa

Ondorioz, badirudi eremuaren arabera orokortasunak agertzen direla lekuka. Alta, multzo ezberdinen eremuen hurbiltasunagatik, ezin da erran faktore geografikoak errola garrantzitsurik baduela *raisce*-aren izaerarengan. Txanponaren esplikapenarentzat, aurretik egin ditugun zatiketa geografikoak, denboran ere zatitzen zirela konduan harturik, pentsa dezakegu *raisce* unitateen aldaketa baita kronologiari ere lot daitekeela.

### 1.3. *Raisce*-aren izaera kronologikoki

Ikusi dugun bezala, garai ezberdinetan *raisce* agertzen den dokumentuen kokalekua aldatzen da eta eremu konkretu batzuetan finkatzen. Baina, *raisce*-aren izaera ez da geografiari lotua, garaiari baizik. Bereizi ditugun lau garaiak azter ditzagun.

#### 1034/1036-1048

Garai honetan, nagusitzen diren bi unitateak, elikadurako oinarrizko elementuak dira: ardoa eta ogia. 238. testuan ardi bat daukagu, haragiarentzat balio zuena. Aldiz, *argenteo* unitateko txanpon agertze soilak ez digu *raisce*-ari dagokion kronologiaren berezitasunik ekartzen, bakarra delako eta gainera, ogi batek osatzen duelako. Beraz, azpimarra dezakegu nekazaritzatik eta landa munduko produktuekin osatuta dagoen *raisce*-ak dauzkagula garai honetan.

#### 1045-1058

Garai hau aurrekoarekin gurutzatzen da lau urtez eta elementu bertsuak erakusten ditu. Ardoarentzat unitate berri bat agertzen da, hau da kamela, geografiarekin lot daitekeena, hemen karabito eta arenzata desagertu direlarik. Bestalde, behar da notatu abereen agerpen hazkorra aurreko dokumentuekin konparatuz. Nahiz eta mende hasierako hiru dokumentu bakarrekin konparatzea zaila den, bederatzietatik seik animale bat daukate *raisce*-an; besteak beste, *aries* ala *carnero*, edo, *tozino*. Hala ere, ogi eta ardoaren presentziak, elikadura hauen ezinbestekotasunari buruz informazioa ematen digute. Honetaz gain, ez dago txanponaren aipurik.

#### 1064-1065

Villagonzalo eta Ayuelas-en, unitateak bestelakoak dira erabat. Bi baizik ez baldin baditugu aztergai, biak txanponez osatuak dira. Lehena bi *argenteo* eta ardo karabito erdi baten baliokoa da (karabito unitatea berriz agertzen da, lehen multzoko

eremutik hurbiltzen garen ber) eta bigarrena sos batekoa. Kronologikoki, diruaren jariotasun geroz eta handiagoarekin lotuta egon daiteke fenomeno hau.

### 1081-1098/1099

Azken garai honetan, aurrekoarekin zerikusia izan dezakeen progresio bat daukagu. 1081 eta 1082koek ez daukate txanponik, ardo, ogi eta xerriz osatuak dira hain zuzen ere. Alta, 1085etik goiti - 1086ko 224. testua aparte -, denak txanpon unitatez osatuak dira. Progresiboki, diruaren balioaren agerpena nagusitzera doa, beste elementu batzuekin osaturik. Hazkunde monetario hori 1064-1065 arteko dokumentuekin lot dezakegu. Azken multzoan agergai diren unitateak hauek dira: *argenteo*, *dinero*, *denario* eta *solido argenti*.

Azken multzoko raise-aren izaerak, pentsatzera emaiten du diruaren zirkulazioa areagotu egin zela eta ugaritu zela. Izan ere, badirudi txanpon zirkulazioa apur bat areagotu egin zela. Nahiz eta batzuek diru nafarraren akuñazioa Santxo III Handiari egotzi zioten luzaz, badirudi Aragoiko Santxo Ramirez izan zela lehena honi ekiteari 1076-1077. urteen artean, Iruñeako Erresuma zati bat okupatu zuen ber urteetan. Aldiz, txanpona aurretik ezagutzen zen Iberiar Penintsulako erresuma giristinoetan, al-Andalusekoak zirkulatzen zuelako bertan<sup>14</sup>. Gainera, bertako dirua akuñatzen hasi ziren arren, musulmanena erabiltzen segitu zuten eta landa munduan espeziekin ordaintzen segitu zen<sup>15</sup>.

Sistema omeiarra plantatu zenetik, prozesu fiskalaren oinarritzko tresna izaten segitu zuen XI. mende osora arte. Izan ere, Al-Andaluz-eko txanpona erresuma giristinoetan zabaldu zen aurreko bi mendeetan, bakarra zelako Penintsulan. Hiru txanpon nota ditzakegu: urreko *dinar*-a, zilarrezko *dirham*-a eta kobrezko *felus*-a<sup>16</sup>.

Horiek hola, taifa erreinuetako esplotazio ekonomikoak txanponaren hedatze geroz eta nabariagoa ekarri behar zuen, izan *razzia*, erreskate edo trukaketen bidez, bainan, erran bezala zirkulazioaren areagotzea arretaz behar da neurtu eta dirudienez ez zen hazkunde nabaririk egon edo ez dago honi buruzko informazio asko<sup>17</sup>. Gaztela eta

14. IBÁÑEZ ARTICA, "Primeras", 83-86. orr.

15. Ibid., 90-91. orr.

16. CANTO GARCÍA, "Moneda hispanoárabe", 73-75. orr.

17. Gaultier Dalché-ek adierazten duen bezala, gai honi buruzko lan guti daude eta hutsune bat dago jakintza honetan.

Leonen txanpon zirkulazioa garrantzitsua zen garairako. Azken honetan, kasik sistematikoa zen eta modio-aren erabilpena ez zen erregularra. Alfonso VI-ak akuñatzea erabaki zuelarik, dirua akuñatzea erabaki zuen eta ez *dirhem*-a. Era berean, Mendebaldeko munduarekiko hurbiltasuna markatu zuen, giristinotasuneruntz eta Donejakueko bideruntz itzuliz<sup>18</sup>.

Bainan, guk dauzkagun dokumentu soilekin ezin dezakegu zirkulazioari buruzko suposiziorik aitzinatu. Ez dira nahikoak kopuruan eta esan bezala, ez dago frogarik hazkunde bat izan zenik alde honetatik. Honetaz gain, diru batzuk ezagunak dira eta haien balorea zehaztu daiteke, bainan batzuk ezezagunak gelditzen dira - titulua eta berezko pisua ez dira ezagutzen -, beraz, zaila izaten da bere balioaren kalkulatzea<sup>19</sup>.

Azken bi dokumentuetan, nahiko izaera berezia daukaten bi *raise* ditugu, hau da, *pro mortua*. Hauei buruzko ulermena nahiko korapilatsua da eta dagoeneko zentzugabea.

## Ondorioa

Ondorioz, kronologiarekiko berezitasun nabarmen bat atera dezakegu: denboran aurreratuz ahala, diruaren agerpena erlatiboki areagotzen da. Hipotesia bezala esan dezakegu diruaren zirkulazio hazkorrak eragina izan zuela *raise*-aren baitan. Ildo beretik, *raise*-aren formakuntza garaiko errealitate komertzial edo ekonomikoarekin lotua zegoen.

---

18. GAULTIER DALCHE, "Histoire monétaire", 56-60. orr.

19. GRIERSON, P., "Les Monnaies", 32. orr.

## 2. Testuingurutik kanpo

### 2.1. *Raisce*-aren balioa prezioaren balioarekiko

Salgaiaren prezioa eta *raisce*-aren arteko proportzionaltasun bat bilatu nahian, gora-behera asko ikusten dira. *Raisce*-en konparaketak egiteko, unitate berdineko eta prezio berdineko bi salgai hartu behar dira.

Izan ere, bigarren multzoan, hots, 348. testuan, 1051 eta 1058ko testuek *ager* bat daukate salgai eta biek 6 sosetan. Gainera, *raisce*-a berdina daukate: 3 ardo kamela, 5 ogi eta txerri bat. Argiki, badirudi prezioaren eta *raisce*-aren arteko lotura proportzionala dela edo bederen, araudi konstante bat segitzen duela (ikus 7. dokumentua).

Bestalde, badirudi *ager* edo *ortus* bat daukaten salmentek, prezioarekiko proportzio bat segitzen dutela orokorrean eta beraz, *raisce*-an dauden unitate ezberdinen artean ere.

Urtea	1048	1048	1045	1050
Salgaia	<i>ortus</i>	<i>ager</i>	<i>ager</i>	<i>ager</i>
Prezioa	9 sos	15 sos	3 sos 1 argenzo	3 sos
<i>Raisce</i> -a	4 ardo kamela 6 ogi 1 ardi	6 ardo kamela 10 ogi	2,5 ardo kamela 6 ogi 2 gasna	1 ardo kamela 3 ogi 1 ardi

Urtea	1058	1051	1051
Salgaia	<i>ager</i>	<i>ager</i>	<i>ager</i>
Prezioa	6 sos	10 sos	6 sos
<i>Raisce</i> -a	3 ardo kamela 5 ogi 1 txerri	5 ardo kamela 8 ogi 1 ardi	3 ardo kamela 5 ogi 1 txerri

7. dokumentua

Izan ere proportzioa hau segi dezakegu *raisce*-ko unitate bakoitza isolatuz eta prezioarekiko konparatuz:

- $\text{prezioa}/2 \approx \text{ardo kamela kopurua}$
- $\text{prezioaren } \%80 \approx \text{ogi kopurua}$

- edozoin prezio = animale 1

Azken berdinketa hau, 1048ko *ager* salmentan ez da baieztatzen, *raisce*-an animalerik agertzen ez den ber. Baina, ber urtean eta 9 sosetan *ortus*-a saltzen duenak du aurretik aipatu *ager*-a saltzen ber erosleari (Gutier Aduruz-ek Ferruzo apaizari). Beraz, hipotesia bezala esan daiteke animaliak bi salmentendako balio duela, ideia hau segurua izan gabe.

Hau dela eta, Becerro Galikanoko 348. ber dokumentuan, mahastia daukaten salmenten *raisce*-ek ez dute logika hau segitzen eta badirudi haien artean ere ez dagoela loturarik (begiratu 2. *taula*).

Urtea	1046	1047
Salgaia	<i>vinea</i>	<i>vinea</i>
Prezioa	16 sos	2 sos
Raisce-a	5 ardo kamela 6 ogi 1 ardi	1,5 ardo kamela  1 gasna

8. dokumentua

Ondorioz, dokumentu bakar batean ikus dezakegu salmenta batzuek proportzionaltasuna daukatela eta beste batzuek ez. Proportzionaltasunari erantzuten dioten salmentek ber salgai mota daukate gehiengoan. Bainan, ber izaerako beste salgai batzuk hartuz gero, proportzionaltaunak ez du beti erantzuten, mahastiekin ikusi dugun bezala. Beraz, ez da proportzionaltasun matematiko absoluturik *raisce*-a kalkulatzeko orduan. Esan dezakegu justu, batzuetan guneka, halako arau bat segitzen dela eta bestela, unean uneko kontsentsuak direla.

Bainan, dokumentu guziak haien artean alderatuz, ikus daiteke prezioa gero eta altuago bada, *raisce*-aren bolumena ere igaiten dela. Orokorrean, prezio eta *raisce*-aren artean kontsidera dezakegun arau bakarra hau da, prezioa gero eta altuago eta *raisce*-a gero eta altuago dela. Aldiz, erran bezala, kalkulu matematiko zehatzik ezin da egin.

Hitza eta kontzeptuari buruzko hurbilketa oraindik konplexuagoa izanen da eta zabalagoa, beste ikuspuntu batzuetatik lantzeraz behartzen gaituena. Hortaz, salgaiaren prezioa kontsideratu ordez, galdetu genezake ea salgaiaren izaerak loturarik baduen *raisce*-aren unitateekin.

## 2.2. *Raisce*-aren izaera prezioaren izaerarekiko

Lehen multzoko dokumentuek jada, erakusten digute prezioaren unitateak eta *raisce*-aren unitateak ez dutela loturarik. 238. dokumentuko prezioa solidoetan baldin bada eta *raisce*-a ardo arenzata, ogi eta aries-etan, 118. dokumentuko prezioa solidoetan da eta *raisce*-a argenteos eta ogietan. Berdin argenteos-ek ekibalentzia bat badute ardo arenzata eta aries-a ordezkatzeko, bainan unitatean ez da halakorik gertatzen. Bestalde, 29. dokumentuko prezioa azutete eta almude-etan da, besteekiko konparaketa eragozten duena.

Aurretik aipatu bezala, 348. dokumentuko salmentek uniformetasun bat erakusten dute *raisce*-ko unitateetan, logika hau segituz: ardo, ogi eta animale. Gainera, balioan edo kopuruan ere proportzionaltasun bat daukagu. Ikusiz prezioa solidoetan dela, ondorioztatzen da prezioko unitate baten arabera, halako unitatea aurkitzen dugula *raisce*-an. Bainan, ezin dugu jakin logika hori solidozko prezioen sistematizazioari lotua denez, edo proportzionaltasunari, edo unitateen errekonbertsioari prezio eta *raisce*-en artean. Hala ere, salmentaren arautze baten aurrean gaude dokumentu honekin.

1064 eta 1065 urteetako bi dokumentuetan sos eta *solido argenti*-ek osatzen dute prezioa, lehendabiziko urteko *raisce*-a argenteos-*ez* osatzeko, baita ardo karabito bat eta erdi, eta bigarrena solido batez osatzeko. Argenteos eta solidoen artean konbertsioa egin daiteke - gainera, konduan hartu behar da lehen prezioa bigarrena baino askoz merkeago dela, argenteos-en agerpena esplika dezakeena - eta ardo karabitoa osagarri bezala kontsideratu. Bainan, segurtasunik ezin da aurreratu eta arretaz tratatu behar da kasu hori.

Azken multzoan, solidozko prezioentzat, solidozko *raisce*-a ukan dezakegu edo ogi, ardo eta animalezko *raisce*-a. Beraz unitateen arteko koherentziarik ez da. Hala ere, *raisce*-aren izaeraren bilakaera ez dugu alde batera utzi behar hemen ere. Aurretik aipatu bezala, diruaren agerpen gero eta nabariagoa daukagu. Bainan hau diru erabilpenaren sistematizazioari eta txanpon zirkulazioaren hedaketari lotu behar ginuke, ez eta prezio eta *raisce*-aren arteko unitateen uniformizazioari. Gainera, dirua natura ezberdinetan agertzen da, hala nola, denario, argenteo, solido,...



### **2.3. Raisce-aren izaera salgaiaren izaerarekiko**

Kasu honetan, raisce-a salgaiarekin erlazionatuko dugu. Izan ere, bien izaeren artean harremanik dagoen begiratuko dugu. Lehenik eta behin, azpimarratu behar da salgaia beti lurrari lotua dela eta nekazaritzan duen funtzioa baizik ez dela aldatzen. Ondasun higiezin hauen artean baratzeak, solareak, mahastiak,... dauzkagu.

Hasteko, raisce-an ogia agertzen diren hiru dokumentu hartzen baditugu, ikusten dugu salgaiaren izaera aldakorra dela. Honela, 118. testuan solare bat daukagu, 29.ean baratze bat eta 702.ean mahasti bat. Ardoarekin ere baratze bat eta mahasti bat aurki ditzakegu 29 eta 15. dokumentuetan hurrenez hurren. Gasna, animale eta diruarekin fenomeno berdina obserba dezakegu. Gainera, animaleen kasuan, ardien adibidea isolatzen badugu, 348. testuan, ikusten da baratze bat edo mahasti bat truka daitezkeela.

Ondorioz ez dago loturarik salgaiaren izaera eta raisce-aren izaerarekiko. Atxiki daitekeen gauza bakarra da lurrari loturiko ondasun higiezinak direla trukutzen edo saltzen. Bestalde, ezin da loturarik egin ere salgaiaren balioa eta raisce-aren balioaren artean, salgaien balioak ez direlako zehaztuak.

## ONDORIOA

Hastapenetik, ikusi dugu XI. mendean, Donemiliagako Kukulako Becerro Galicano-an, *raisce*-a geografia zehatz batean agertzen dela, kronologia mugatu batean. Bi kriterio hauei esker, lau multzo osatu ahal izan ditugu lehen azterketarako. Hori dela eta, esan bezala, zuhurtziaz ibili behar da agerpen hauekin, dokumentu batzuk galdu ahal izan direlako, ez direlako sekulan Donemiliagako Kukularekin lotuak egon edo beste arrazoi batzuegatik. Honetaz gain, suposa daiteke ere trukaketa edo salerosketak, guk zehaztu ditugun epeetan, aipatu ditugun leku mugatu hauetan baizik ez direla egin.

Bigarrenik, *raisce*-aren izaera landu dugu geografikoki. Bertako testuinguruari lotua dela ondorioztatu arren, ohartu gira diruaren agerpen geroz eta orokorragoa ez zela geografiari lotzen ahal. Beraz, *raisce*-aren izaera kronologiarekin alderatzean, diruaren halako erabilpen sistematikoago bat azaldu da.

Hirugarrenik, *raisce*-aren balioa prezioaren balioarekin erlazionatzean, tokian tokiko proportzionaltasun bat aurkitu dugu, arau bat segitzen balu bezala. Kontsentsu ekonomiko-sozial modu bat izan zitekeen, alta, hau gehienetan ez da gauzatzen. Beraz, ezin dugu arautze ekonomikorik aipatu *raisce*-a aztertzen dugunean. Izaera ezberdinak nahasten direnez batetik bestera, *raisce*-aren eta prezioaren izaeren artean ere ez dago harremanik, prezio eta *raisce*-aren balioen artean aurkitu ditugun proportzionaltasunetan baizik. Baina izaeren arteko loturek baino, balioen arteko loturek zentzu gehiago dutela dirudi.

Laugarrenik, *raisce*-aren eta salgaiaren arteko harremana ezin izan dugu ikertu balioari dagokionez, esplikatutugun arrazoinengatik. Unitateari dagokionez, ez dago zentzu argirik, denak nahasten direlako hemen ere.

Ondorioz, *raisce*-aren formulatze eta eratzeari buruz, argibide guti dauzkagu. Prezioaren ondotik agertzen denez, ematen du transakzioa burutzen duela. Badirudi trukaketa edo salerosketaren balioztatze edo onarpen bat bezala erabiltzen zela. Garaiko testuinguruak, honelako tradizioak erakutsi ohi ditu jendeen arteko ondasun trukaketetan. Izan bi partikular edo partikular eta elizgizon baten artean, suposa daiteke

tradizio hau harreman sozialean oinarritzen zela, eta ez zentzu ekonomiko batean: prezioarekin batera dator, bainan, prezioetik bereizirik. Suposatzen badugu salgaiaren balioa prezioan dela, *raise*-ak beste izaera bat dauka.

Bestalde, galdera pausa genezake ea salgaiari ematen zaion balorea, bai prezioan eta bai *raise*-an, konkretuki trukutzen den balioa den ala salgaiari balio baten emateko erabiltzen den. Diruak ere salgaiaren edo prezioaren bolumena erakuts dezake besterik gabe, transakzioan benetan presente izan gabe. Bere areagotzea, balioak kalkulatzeko era sistematiko bati lot daiteke.

Honetaz gain, *raise*-aren inguruko formulazioari ere interesa gaitzke. Esan bezala, idazten zakitenek osatzen zituzten testu hauek, saltzaile edo erosleen izenean. Maiz, lehen pertsona saltzailea da ("*vendimus*"<sup>20</sup>). Formulazioak suposatzen du saltzaileak duela prezioa eta *raise*-a finkatzen, honetaz segur ez giren arren, "*accepimus*" hitzaz segitua izan daitekeelarik: "*In rexe vero, duos de te accepimus carabitos de vini*"<sup>21</sup>. Baina, salerosketako *raise*-aren aipamena eroslearen ikuspuntutik idatzia izan daiteke: "Et ego domno Munnio in Sancta Cruce de Ripa Rotunda dedi ad vobis omnibus *raise* et roboratione"<sup>22</sup> edo "Ego, domno Sancio Garsea, comparavi una vinea de meo proprio argento de Sancio Gomiz et de Urraca"<sup>23</sup>. Pertsona aldaketa honek, eragina izan dezake *raise*-arengan, hau finkatzerako orduan?

Gisa guziz, *raise*-aren kontzeptuak nahiko ilun dirudi oraindik. Testuinguru berezi batean behar da kokatu, gaur egungo garai eta logiketatik haratago. Hainbat faktore sar daitezke jokoan eta argitugabe dagoen zentzu batean agertzen da. Bere azterketak lanketa gehiago galdegiten ditu. Gure txostenari konparatuz, interesgarria laike kartularioaren osotasunean lantzea eta alderatzea. Beste eskualdeetako eta ber garaiko kartularioek ere informazioak ekar ditzakete.

Gainera, harreman sozialean duen hartzen duen plegadura ere azter daiteke: justu trukaketa simple bat suposatzen du ala mendekotasun bat markatzen du, gizarte batean sartzeko prozesu batean kokaturik, Elizak egiten zuen bezala<sup>24</sup>? Izan ere,

---

20. BGBD 238.

21. BGBD 9.

22. BGBD 428.

23. BGBD 20.

24. FELLER, "Transformation", 91. orr.

ondasun iraunkor bat trukutzen da ondasun kontsumigarri baten kontra. Beraz, ondasun kontsumigarriak iraunkortasun balorea hartzen du trukaketaren orduan ala kontrapartidoan, gizarte maila altuago baten segurtasuna edo, Elizaren kasuan, mesedea jasotzen da, sistema sozial edo erligioso-sozial batean bere lekua hartuz? Senidetza aipua ere, familia guziaren binkulatzea suposa dezake Feller-ek proposatzen duen bezala<sup>25</sup>. Ausnarketa berri guzti honek galdera honetara garamatza: trukaketa edo salerosketan, pertsonen eta gizarteko klase ezberdinen arteko harremanak, *raisce*-aren forma ezberdinetan parte hartzen du?

---

25. FELLER, "Transformation", 104-106. orr.

## BIBLIOGRAFIA

### Liburuak

- CANTO GARCÍA, A., "La moneda hispanoárabe y su circulación por Navarra", in : *La moneda en Navarra*, Exposición 31 de mayo a 25 de noviembre de 2001, Museo de Navarra Pamplona, 73-82. orr.
- FELLER, L., "Transformation des objets et valeur des choses. L'exemple de la Vita Meinwerici", in : FELLER, L. eta RODRÍGUEZ, A., *Objets sous contrainte. Circulation des richesses et valeur des choses au Moyen Âge*, Publications de la Sorbonne, Paris, 2013.
- FELLER, L., et al., *La Fortune de Karol. Marché de la terre et liens personnels dans les Abruzzes au Haut Moyen Âge*, École Française de Rome, Rome, 2005.
- GAULTIER DALCHÉ, J., "L'histoire monétaire de l'Espagne septentrionale et centrale du IXe au XIIe siècles: quelques réflexions sur divers problèmes", *Anuario de estudios medievales*, 6, 1969, 43-95. orr.
- GRIERSON, P., "Les Monnaies", *Typologie des sources du Moyen Âge Occidental*, 21. bol., Louvain, 1977.
- IBÁÑEZ ARTICA, M., "Primeras emisiones monetarias Aragonesas-Pamplonesas", in : *La moneda en Navarra*, Exposición 31 de mayo a 25 de noviembre de 2001, Museo de Navarra Pamplona, 83-96. orr.
- MENÉNDEZ PIDAL, R., *Léxico hispánico primitivo (siglos VIII al XII)*, Fundación Ramón Menéndez Pidal eta Real Academia Española, Madrid, 2003.

### Web guneak

- Becerro Galicano-aren bertsio digitala:  
<http://www.ehu.eus/galicano/?l=eu>
- FELLER, L., "Les conditions de la circulation monétaire dans la périphérie du royaume d'Italie (Sabine et Abruzzes, IXe-XIIe s.)", in : FELLER, L., *L'argent au Moyen Age : idéologie, finances, fiscalité, monnaie* (Actes du XXVIIe congrès de la Société des Médiévistes de l'Enseignement Supérieur, Clermont-Ferrand, 30 mai-1er juin, 1997), Paris, 1998, 61-75. orr. *Reti Medievali* web gunean:  
<http://rm.univr.it/biblioteca/scaffale/f.htm#Laurent Feller>
- GARCÍA TURZA, J., *Introducción a "El camino de Santiago y la sociedad medieval"*:  
[http://www.vallenajerilla.com/berceo/santiago/santiago\\_introduccion.htm](http://www.vallenajerilla.com/berceo/santiago/santiago_introduccion.htm)

- PASSINI, J., "Morphologie et évolution de quelques villes du chemin de Saint-Jacques-de-Compostelle", *Mélanges de la Casa Velázquez*, 1980, 16. zbk., 113-124. orr.:  
[http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/casa\\_0076-230x\\_1980\\_num\\_16\\_1\\_2318](http://www.persee.fr/web/revues/home/prescript/article/casa_0076-230x_1980_num_16_1_2318)

## BECERRO GALICANO-KO TESTUAK

Hona ondoko horrietan Donemiliaga Kukulako Becerro Galicano-an erabili ditudan testuak. *Raisce* hitzak grisez azpimarratuak dira.

- 238 - [1034, abril, 13] | [1036, abril, 13]

*Aketi Pascuález y su madre Elo venden a Oveco y al abad Oveco un ero en Grañón.*

Bec. Gal., fol. 74v.

Ed. Ubieto, p. 208, núm. 210 (fechado en 1037).

Ed. García Andreva, p. 484 (fechado en 1034).

### De Aketi Pascqualez in Grannione.

Ego Aketi Pasqualez et mater mea Elo, placuit nobis et vendimus ero nostro proprio de illa Costa, ad latus de illo ero de Oveco Ceco, ad tibi, Oveco, et ad abbate domno Oveco, in precium quantum placuit, et dedisti nobis XXVI solidos, et *raisce*, arenzata de vino, X panes et arietem. Et post odie die habeatis per secula, amen.

Si quis ex nostris sangu<i>nibus vel extraneis inqu<i>etare voluerit, pariet a parte rex LII solidos, et ipso ero duplato in tale loco ad vobis.

Facta carta era MLXXII<a>, II<a> feria, idus apr<i>lis, regnante rex Veremudo in Legione, Fredinando comite in Castella, GarseaSanchiz rex in Pampilona, maiorino Monnio Citiz in Gr<a>nnione.

Ego Aketi et mater mea Elo hanc scriptam firmamus coram hic testes: Didaco Gemilez testis, Garcia Monnioz testis, Belasco de donna Bona testis, Babilas presbiter, confirmans; in manus de domno Beila monaco est roborato.

Belasco presbiter, titulavit.

*Muño y Oveco Mómez venden una tierra, por un lado, y Anderazo Curullera y sus nietos un solar, por otro, a don Íñigo en Vallota y Alesanco respectivamente.*

Bec. Gal., fol. 39v.

Ed. Ubieto, p. 222, núm. 227.

Ed. García Andreva, p. 319.

**De terra in Valle Auta et solares in Alesanco.**

Et ego Monnio Momez et Oveco Momez vendimus terra nostra in Valle Auta, in illa Cruce de Sancta Lucia; via vadit de sursum et deorsum vineas de Fervias.

Et ego Anderazo Curullera et meis neptis vendimus nostro solare in Alesanco, latus via, de occidente, mulatare de Azenari Ferrero, in XV solidos, ad vos dompno Enneco, **raisce** qu*n*que argenteos, IIII<or> panes.

Cauto retemtu, C solidos.

Fidiatores: Balsco de duenna Sennor, Blasco adenantado, Meteri de Fervias, Azenari Ferrero.

Era MLXXXII<a>, Garsea rex.



*Salvador de Cañas y su mujer Totadoña se ofrecen al monasterio de San Millán junto con todas sus posesiones en Cañas.*

Bec. Gal., fol. 15 - 16.  
Romero (Colec. Ming.), núm. 137.  
Ed. Serrano, p. 142 - 143, núm. 133.  
Ed. Ubieto, p. 242 - 244, núm. 251.  
Ed. García Andreva, p. 208 - 209.

### XXV. De hereditates in Cannas.

Sub Christi nomine redemptoris nostri. Ego igitur Salvator, monachus Sancti Emiliani, ortus ex vico Canne, offero corpus et animam meam Deo omnipotenti in aula Beati Emiliani, in manus domni Gundessalvi abbatis, cum omnia facultatula que habere potui, et ex meum quod emi peculium, cuncta offero ad Sanctum Emilianum.

Similiter ego Totadona, uxor huius domni Salvatoris, una cum eo, offero corpus meum et anima ad Sancto Emiliano, cum omni mea pertinencia et conparatione, id est: in caput Saucti, I<a> terram, ad illas Pennellas, in XXX<a> solidos, qui fuit de Sancio Camarero et Carosa, ab illas Pennellas usque ad illa Rate. De Villare, Garcia Sanchez et Fortun Ennecoz, fidiatores; de Cannas, Sancio Farrameliz et Sancio Belasquiz, fidiatores. Cauto retentu, LX<a> solidos. Alia terra iuxta Saucto, qui fuit de Blasco Sanchiz, et suos germanos de Villar, in XIII<or> solidos. Monnio Salvatorez et Monnio Sanchiz de Villar, fidiatores; Fortun de Olalia et Menzu de Cannas, fidiatores. Cauto retentu, LX<a> solidos; et duplo. Alia terra ad Sancto Michele, iuxta arbore perforato, in X solidos, qui fuit de tia Sancia. Monnio Vitacoz et Garcia, magistro, fidiatores. Si retentu, LX<a> solidos; et duplo. Alia terra de dompno Salvatore, propr<i>a, in Valle Auta, qui fuit de Sancio Ulaqu<i>diz de Alesanco, in XVI solidos. Monnio Fortis et Azenari Ferrero de Alesanco, fidiatores; Garcia, magistro, et Fortun de Eolalia, fidiatores. Ad retentu, LX<a> solidos; et duplo.

**De vineis:** una vinea in Plano, ante villa, qui fuit de Sancio Ennecoz, in XVII solidos. Sancio Farrameliz et Sancio Bellaqu<i>d, fidiatores. Cauto eiusdem, LX<a> solidos; et duplo. Alia vinea ad latus huius predicte vinee, qui fuit de Sancio Galindez, in XVII solidos. Menzu et Fortun de Eolalia et Sancio Leuzano, fidiatores. Cauto eiusdem, LX<a> solidos; et duplo. Ad latus harum vinearum predictarum, una vinea qui fuit de Gomiz Blalza de Mazanares, in

